

IRAGARKIA, 212/07 administrazioarekiko auzi errekurtsuan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketan hirugarrenentzako deia. 17265

IRAGARKIA, 216/07 administrazioarekiko auzi errekurtsuan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketan hirugarrenentzako deia. 17266

#### **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA**

IRAGARKIA, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeari buruzkoa. 17267

#### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZORDEA**

JAKINARAZPEN-ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoari buruzkoa. 17267

JAKINARAZPEN-ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioko Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoari buruzkoa. 17268

### **Pribatuen Iragarkiak**

#### **SAN SEBASTIÁN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, SA**

ERABAKIA, 2007ko martxoaren 15ekoa, San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.Aren Administrazio Kontseiluarena, izaera pertsonaleko jabetza publikoko fitxategiak sortzeari buruzkoa. 17269

### **Xedapen Orokorrak**

#### **KULTURA SAILA**

##### **4081**

107/2007 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantziarioa arautzen duena.

Kulturaren eta arte ederren alorrean dituen eskumenen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak modalitate berriak ezarri nahi ditu EAEn ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko eta sendotzeko. Ezarri nahi diren neurriek, gainera, Ikus-entzunezkoen i2i Programan emandako arauak dituzte oinarri. Programa hori Europako Batzordeak bultzatu du, Inbertsioetara-

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 212/07. 17265

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 216/07. 17266

#### **CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA**

ANUNCIO relativo a la constitución del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa. 17267

#### **JUNTA ARBITRAL DEL TRANSPORTE DEL PAÍS VASCO**

CÉDULA DE NOTIFICACIÓN sobre laudo arbitral de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 17267

CÉDULA DE NOTIFICACIÓN sobre laudo arbitral de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 17268

### **Anuncios Particulares**

#### **SAN SEBASTIÁN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, S.A.**

ACUERDO de 15 de marzo de 2007, del Consejo de Administración de San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.A., de creación de ficheros de titularidad pública de carácter personal. 17269

### **Disposiciones Generales**

#### **DEPARTAMENTO DE CULTURA**

##### **4081**

DECRETO 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dentro de las competencias que ostenta en materia de cultura y fomento de las bellas artes, pretende establecer nuevas modalidades para la consolidación e impulso de la producción audiovisual en el ámbito de la Comunidad Autónoma. Las medidas que se establecen encuentran igualmente fundamento en las directri-

ko Europako Bankuaren laguntzaz, ikus-entzunezkoen enpresen egonkortasun finantzarioa sendotzeko.

Sustapen-politika hori zehazteko, nahitaezkoa da hainbat finantziazio-lerro ezartzea, ez bakarrik proiektuak egoki aukeratzeko eta dituzten arriskuak behar bezala ebaluatzeko, baita ikus-entzunezko produkzio-modalitate desberdinen finantziazioan sortzen diren arazo larriak arintzeko eta etorkizun handiko kultur sektore berritzaile horretan proiektu garrantzitsuagoak burutu ahal izateko.

Alor horretan, Kultura Sailaren apustua da berariazko finantziazio-lerro bat ezartzea. Ildo horretatik, ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko garatu eta erabiliko diren finantza-tresnek, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen ohiko sistema gaindituz, beste aukera batzuk eskainiko dituzte nagusiki: aurrerakin itzulgarriak edo interes-tasa txikiko maileguak, oinarri teknologiko edo berritzailea duten enpresentzako beste programa batzuetan egiten den bezala.

Hortaz, programa horietan finkatutako ildoei jarraituz, entitate laguntzaile bat arduratuko da ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko finantza-lerroen inguruko kudeaketa eta ordainketak egiteaz.

Dekretu honen bitartez, aipatutako finantziazio-moduei buruzko araubidea eta horien ezaugarriak zehazten dira; bereziki, eskakizunak, laguntzak jaso nahi dituzten enpresak jarraitu behar duten prozedura, Batzorde Tekniko Aholkulariaren zereginak eta programaren kudeaketan entitate laguntzaile batek parte hartzeko aukera.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurritzaren Kontseiluak 2007ko ekainaren 26ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.– Helburua.

1.– Dekretu honen bitartez, euskal ikus-entzunezkoen sektorean produkzioa, lehiakortasuna eta enplegua sustatzeko finantzatutako diren ikus-entzunezko proiektuek zein baldintza bete behar dituzten eta laguntzak nola emango diren zehazten da.

2.– Hauek dira sustapen-lerroak:

- Interes-tasarik gabeko maileguak.
- Kontratuak finantzatzeko maileguak.

ces emanadas del Programa i2i Audiovisual, auspiciado por la Comisión Europea en colaboración con el Banco Europeo de Inversiones en orden a reforzar la estabilidad financiera de las empresas audiovisuales.

Como concreción de dicha política de fomento, se entiende necesario articular una serie de líneas de financiación que, sin menoscabo de una adecuada selección de los proyectos y de la valoración de los riesgos asociados a los mismos, coadyuve a paliar los importantes problemas de financiación de las diversas modalidades de producción audiovisual y permita afrontar proyectos más ambiciosos en este sector innovador, cultural y de futuro.

En este ámbito el Departamento de Cultura apuesta de forma decidida por el establecimiento de una línea de financiación específica mediante el desarrollo y aplicación de instrumentos financieros orientados al fomento de la producción audiovisual utilizando, fundamentalmente, frente a la fórmula clásica de subvención a fondo perdido, las fórmulas de los anticipos reintegrables o de los préstamos a bajos tipos de interés, ya existentes en otros programas para empresas de base tecnológica o innovadora.

Así, siguiendo la línea marcada por tales Programas se acude a la fórmula de acometer las labores de gestión y pago de las cantidades que materialicen las líneas financieras de fomento de la producción audiovisual a través de una Entidad Colaboradora.

Mediante este Decreto se establece el régimen y características de estos cauces de financiación y, en particular, los requisitos a cumplir, el procedimiento a seguir por las empresas del sector audiovisual que pretendan acceder a la misma, las funciones del Comité Técnico Asesor, así como la previsión de participación en la gestión del programa de una entidad colaboradora.

En virtud de ello, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 26 de junio de 2007,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– Es objeto de este Decreto establecer el régimen y condiciones para acceder a las líneas de fomento para la potenciación de la producción, la competitividad y el empleo en el sector audiovisual vasco, mediante la financiación de proyectos audiovisuales.

2.– Las líneas de fomento que se establecen son las siguientes:

- Préstamos sin interés.
- Préstamos para la financiación de contratos.

**2. artikulua.**– Ekonomia baliabideak.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako helbururako diru-baliabideak urtero zehaztuko dira Kultura Saileko aurrekontuetan. Horien aplikaziorako kontuan hartuko da horretaz EAEko Aurrekontu Orokorren legeek ekonomi ekitaldi bakoitzean xedatzen dutena.

2.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, guztira esleitzen diren zenbatekoek ez dute gaindituko sustapen-lerro bakoitza finantzatzeko ezarritako guztirako zenbatekoa. Zenbateko horiek eta laguntzak eskatzeko epeak Kultura sailburuaren agindu baten bitartez jakinaraziko dira eta agindu hori EHAA n argitaratuko da.

3.– Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, ezarritako zenbateko globala aldatu egin ahal izango da, baldin eta Kultura Sailaren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira.

**3. artikulua.**– Diru-laguntza jaso dezakeen ikus-entzunezko produkzioa.

1.– Dekretu honetan arautzen diren sustapen-lerroak ikus-entzunezko produkzio berriek jaso ahal izango dituzte eta, horien barruan, bai atalkakoak ez diren sorkuntza-lanak bai bestelako produkzioek.

2.– Aurrekontuaren % 40a honako hauek kontratazeko erabili beharko da: kreatiboak, pertsonal teknikoa eta artistikoa eta, halaber, euren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten profesional edo enpresek egindako zerbitzuak.

3.– Dekretu honen arabera atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza lanak sustapen-modalitate bietara aurkez daitezke; bestelakoak, berriz, kontratuak finantzatzeko maileguetako modalitatetera baino ez.

4.– Atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza lanen produktoreek finantziario-modalitate biak erabili ahal izango dituzte batera, betiere, muga hauekin:

– Ikus-entzunezko proiektu bati ezin izango zaio esleitu, modalitate biak kontuan hartuta, 600.000 euro baino gehiago.

– Ez da onartuko subjektu batek dekretu honetako modalitateen bitartez jasotako dirutik 1.500.000 euro baino gehiago itzuli gabe izatea.

5.– Modalitate biak bateragarriak dira beste edozein laguntza edo diru-laguntzarekin. Esleitutako diru-laguntza publiko guztiek, dekretu honetan araututakoak barne, sekula ere ezingo dute gainditu laguntza jasotzen duen ikus-entzunezko produkzioaren erabateko

**Artículo 2.**– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior se dotarán anualmente con cargo a los Presupuestos del Departamento de Cultura, si bien para su aplicación se tendrá en cuenta lo que dispongan a este respecto las Leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cada ejercicio.

2.– El volumen total de las cantidades a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la dotación global destinada a la financiación de cada una de las líneas de fomento establecidas. Mediante Orden de la Consejera de Cultura, que se publicará en el BOPV, se harán públicas tales dotaciones así como los periodos de solicitud de las ayudas.

3.– El importe de tales dotaciones podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las cantidades solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas del Departamento de Cultura.

**Artículo 3.**– Producción audiovisual susceptible de apoyo.

1.– Podrán acceder a líneas de fomento previstas en este Decreto las obras audiovisuales de nueva producción y, dentro de éstas, tanto las orientadas a la creación no seriada, como el resto de producciones.

2.– Las obras deberán invertir un porcentaje equivalente al 40% del Presupuesto en la contratación de creativos, personal técnico, artístico y servicios prestados por profesionales o empresas con residencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– Las obras audiovisuales que, conforme a lo establecido en este Decreto, tengan la consideración de obras audiovisuales de creación no seriada, podrán acceder a ambas modalidades de fomento, en tanto que las que no ostenten tal condición, tan sólo podrán acceder a la modalidad de préstamos para la financiación de contratos.

4.– Los productores de obras audiovisuales de creación no seriada podrán compatibilizar ambas modalidades de financiación, con los siguientes límites específicos:

– No cabrá reconocer cantidades por ambas modalidades a favor de un mismo proyecto audiovisual por cuantía superior a 600.000 euros.

– No cabrá que un mismo sujeto tenga pendiente de devolución cantidades reconocidas a través de las modalidades previstas en este Decreto por cuantía superior a 1.500.000 euros.

5.– Ambas modalidades serán compatibles con cualquier otra ayuda o subvención que pudieran obtener. No obstante, el conjunto de ayudas públicas concedidas, incluidas las reguladas en el presente Decreto, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que supere el 50% de los

kostuaren % 50, non eta ez den euskara hutsean gauzatzaren edo ez diren produkzio esperimentalak, dokumentalak, animazio ataletako pilotoak eta aurrekontu gutxiko produkzioak. Aipatu mugak gaindituz gero, laguntzaren zenbatekoa ahalik gehien murriztuko da, ezarritakoaren arabera.

6.– Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zenbait definizio:

a) Ikus-entzunezko produkzioa: telebistarako edo multimediarako egindako ikus-entzunezko lan produzitu berriak, bai atalkakoak ez direnak, bai bestelakoak.

b) Ikus-entzunezko lan produzitu berriak: emisio-eskubideak eskuratzen diren urtean edo hurrengoan produzitzen direnak.

c) Atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntzalanak: film luzeak, sorkuntzako dokumentalak, atalkako edo multimediarako lanen pilotoak eta film laburrak, hala zinemetan nola telebistan ematekoak. Sail honetan sartuko dira, halaber, kultura izaera edo izaera esperimental nabarmena duten ikus-entzunezko sorkuntzak, horien euskarria dena dela, eta, salbuespenez, animazioko serieak, horientzat jartzen diren baldintzetan.

**4. artikulua.**– Kanpo gelditzen den ikus-entzunezko produkzioa.

Hauek beti geldituko dira kanpo:

a) Batez ere publizitate-dukia dutenak, propaganda politikoa dutenak eta albistegi zinematografikoak.

b) X filma gisa sailkatutakoak.

c) Epai irmo baten bitartez, dena delakoagatik delituzkotzat jotzen direnak.

d) Herri administrazioek guztiz finantzaturakoak.

e) Telebistako zerbitzu-operadore batek produkzioaren kostuaren erdia baino gehiago finantzatu duelako, ikus-entzunezko enkarguzko produktioetat jo daitezkeenak. Horrelakoetan, berdin izango da produkzioa telebistako zerbitzu-operadoreak zuzenean finantzatzea edo horri sozialki lotutako produkzio-etxe batek edo erabakimena duten organoen edo pertsonen bitartez telebista-operadorearen identitatea gordetzen duen batek finantzatzea.

**5. artikulua.**– Onuradunak.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak pertsona juridiko pribatu independenteek eskatu ahal izango dituzte, baldin eta, beren jardueran ikus-entzunezkoen berariazko alorrean burutu eta Europako Batasunean legez eraturakoak izanik, EAEn establezimendu iraunkorra badute eta alta emanda badute Ekonomia

costes de la producción audiovisual beneficiaria de la ayuda, excepto en el supuesto de que se realice íntegramente en euskera o se trate de producciones experimentales, documentales, pilotos de serie de animación y producciones de bajo presupuesto. En el caso de que se sobrepasen los límites citados, se reducirá el importe de la ayuda hasta el límite máximo que corresponda.

6.– A los efectos de lo dispuesto en el presente Decreto, se entenderá por:

a) Producción audiovisual, las obras audiovisuales de nueva producción para televisión o multimedia, tanto las orientadas a la creación no seriada, como el resto de producciones.

b) Obras audiovisuales de nueva producción aquellas que se produzcan en el mismo año en el que se adquieren los derechos de emisión o en el año siguiente.

c) Obra audiovisual de creación no seriada, las películas de largometraje, los documentales de creación, los pilotos de serie o de multimedia y los cortometrajes, destinados a su exhibición cinematográfica y/o televisiva. Igualmente se entenderán como tales, las creaciones audiovisuales de decidido carácter cultural o experimental cualquiera que sea su soporte y excepcionalmente las series de animación, en los términos que formalmente se establezca para este supuesto.

**Artículo 4.**– Producción audiovisual excluida.

En todo caso, estarán excluidas las siguientes:

a) Las que tengan un contenido esencialmente publicitario, las de propaganda política y los noticiarios cinematográficos.

b) Las que hubieran obtenido la calificación de película X.

c) Las que por sentencia firme fuesen declaradas en algún extremo constitutivas de delito.

d) Las financiadas íntegramente por administraciones públicas.

e) Las que por tener una financiación superior al 50% del costo de la producción de un operador del servicio de televisión, puedan considerarse una producción audiovisual de encargo. Esta financiación será tanto la que directamente pueda comprometer al operador del servicio televisivo, como la que pueda efectuarse a través de una productora vinculada socialmente o que guarde identidad con la operadora de televisión en los órganos o personas con capacidad de decisión.

**Artículo 5.**– Sujetos beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las líneas de financiación previstas en este Decreto las personas jurídicas privadas independientes que desarrollen su actividad en el ámbito específico de la producción audiovisual, legalmente constituidas como tales en el territorio de la Unión europea, que dispongan o instalen un establecimiento por

Jardueren gaineko Zergako ikus-entzunezkoen produkzio epigrafean.

2.– Hauek joko dira pertsona juridiko pribatu independentetzat: ikus-entzunezko edo multimediako produkzioan ekimena eta erantzukizuna dutenak, betiere, telebistako irrati-difusioko entitateen eraginaren menpe ez badaude, dela jabetasun arrazoiengatik, dela finantza-partaidetzagatik edo entitatea eraentzen duten arauengatik.

3.– Urteko deialdietan ezartzen diren eskakizunen artean, argi jasoko da mailegu-modalitate bietako onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunera dituztela.

4.– Dekretu honetan arautzen diren finantziazio-modalitateak esleitzeko exijitutako baldintzak, emandako zenbatekoak gutziz itzultzeko beharra dirauen artean bete beharko dira. Baldintza horiek betetzen ez direnean, dirua itzuli egin beharko da edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbateko guztiak amortizatu egingo dira.

#### 6. artikulua.– Kanpo gelditzen diren subjektuak.

1.– Laguntza hauek ezin izango dituzte eskatu, ez herri administrazioek, ez Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste edozein herri administrazioako erakunde-administrazioa osatzen duten edozein eratako entitateak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, ez zaio laguntzarik emango ezein ikus-entzunezko produkziorri baldin eta goian aipatutako entitateetako edozeinek horren gainean duen titulartasun-kuota % 10 baino gehiago denean. Titulartasun-kuota hori laguntza eman ondoren gairatzen bada, onuradunari hilabeteko epea emango zaio muga hori doitzeko egin beharreko negozio juridikoak sustatu eta gauza ditzan. Epe hori amaituta partaidetzak aipatutako muga gairatzen jarraitzen bada, onuradunak guztiz amortizatu beharko ditu dekretu honen arabera dagozkion zenbatekoak.

3.– Kanpoan gelditzen diren entitateei dagokien titulartasun-kuota ez da kontuan hartuko interes gabeko mailegu itzulgarrietarako 10. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan ezartzen den produktoreen pilaketari begira.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo bere erakunde autonomiadunek entitate onuradunari ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman badizkiote eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, dekretu honetako laguntzaren eslei-

manente en la Comunidad Autónoma de Euskadi y estén dados de alta en el correspondiente epígrafe de producción audiovisual del impuesto de actividades económicas.

2.– Se entenderá por personas jurídicas privadas independientes las que tengan iniciativa y asuman la responsabilidad en la producción audiovisual y/o multimedia, que no sean objeto de influencia dominante por parte de las entidades de radiodifusión televisiva por razones de propiedad, participación financiera o de las normas que las rijan.

3.– En las correspondientes convocatorias anuales, deberá establecerse la obligación de los beneficiarios de ambas modalidades de préstamos de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

4.– Los requisitos exigidos para obtener las modalidades de financiación previstas en este Decreto deberán mantenerse durante todo el periodo en el que se mantenga el deber de devolución de cualquiera de las cantidades entregadas. La pérdida de tales requisitos conllevará el deber de devolución o, en su caso, amortización de todas las cantidades pendientes de devolución.

#### Artículo 6.– Sujetos excluidos.

1.– Quedan excluidas como beneficiarias de cualquiera de las modalidades de financiación previstas las Administraciones Públicas y las Entidades de cualquier naturaleza que integran la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi o de cualquier otra Administración Pública.

2.– La exclusión establecida en el párrafo anterior será extensiva a cualquier producción audiovisual en la que cualquiera de las Entidades excluidas ostenten o alcancen posteriormente una cuota de titularidad sobre la producción audiovisual superior al 10%. Sobrevenida esta circunstancia tras la percepción de las cantidades, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de un mes para promover y concluir los negocios jurídicos oportunos que permitan reajustar tal límite, transcurrido el cual y manteniéndose tal participación por encima del límite señalado, el beneficiario vendrá obligado a amortizar totalmente las cantidades que le correspondan con base en lo previsto en este Decreto.

3.– No se tomará en cuenta la cuota de titularidad correspondiente a Entidades excluidas a los efectos de acumulación de productores que se prevén para los préstamos sin interés en los apartados 3 y 4 del artículo 10.

4.– La concesión y, en su caso, el pago a las beneficiarias de las cuantías que procedan en virtud del presente Decreto, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Ad-

pena eta ordainketa baldintzatua egongo dira egoera hori konpondu arte.

5.– Onuradunek, dekretu honetan ezarritako finantziario neurriak eskuratu ahal izateko, ezingo dira egon laguntza edo diru-laguntza publikoek baliatzeko aukera ukatuko lieketen ezelango zehapen penal edo administratiboren eraginpean; ezingo dira, halaber, lege debeku eragozleren baten eraginpean egon, horren barruan direla, besteak beste, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta, sexuaren inguruko diskriminazioa egitea gertatutakoak.

#### 7. artikulua.– Bermeak.

1.– Dekretu honetako finantziario-modalitateetako bat eskuratu ahal izateko, interesatuek itzulketa-bermeak aurkeztu beharko dituzte. Horretarako, interesatuek merkataritzan erabiltzen den edozein berme-modu aukeratu ahal izango du (baita produktoreek berek aurkeztutako berme pertsonaletan oinarritutakoak ere). Halaber onartuko dira ekonomikoki ustia daitezkeen eskubideen afektazioa eta enpresa eskatzaileen titulartasunaren menpe dauden ikus-entzunezko produkzioen inguruko kontratuak.

2.– Aurkezten diren bermeek baldintza hauek bete beharko dituzte: egiaztatuta egotea, kargarik ez izatea eta nahikoa izatea itzuli beharreko zenbateko guztia itzultzeko.

3.– Kudeaketa organoak egiaztatuko du aurkeztutako bermeak egokiak diren. Horretarako, irizpide gisa, hipotesi kontserbadoreak erabiliko dira ikus-entzunezkoen eskubideek gerora izango duten komertzializazio eta errentagarritasunari begira.

4.– Organo kudeatzaileak, behar bezala arrazoituta, bermea ez dela nahikoa erabakitzen badu, eskatzaileari berme gehiago eskatu ahal izango dizkio. Aurkeztutako bermeak behar bezala baloratzeko, organo kudeatzaileak entitate laguntzaileari edo kanpoko zerbitzuren bati eskatu ahal izango dio balorazio bat egiteko.

#### 8. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetako finantza-modalitateen inguruko kudeaketa lanak egitea, non eta dekretu honen edo lankidetzara arautzen duen hitzarmenaren arabera entitate laguntzaileari esleituta ez dauden.

## II. KAPITULUA INTERES TASARIK GABEKO MAILEGUAK

9. artikulua.– Interes-tasarik gabeko maileguen ezaugarriak.

ministración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi o sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

5.– Para poder acceder a las medidas de financiación establecidas en el presente Decreto, los sujetos beneficiarios no podrán encontrarse sancionados penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

#### Artículo 7.– Garantías.

1.– Para el reconocimiento de cualquiera de las modalidades de financiación previstas en este Decreto, el o los interesados aportarán las correspondientes garantías de devolución. A tal objeto, los interesados podrán emplear cualquiera de las fórmulas de garantía empleadas en el tráfico mercantil (incluso las establecidas en base a garantías personales presentadas por los propios productores), admitiéndose también, la afectación de derechos susceptibles de explotación económica y contratos relativos a producciones audiovisuales titularidad de las empresas solicitantes.

2.– Las garantías que se presenten, en todo momento, habrán de estar adecuadamente acreditadas, libres de cargas y ser suficientes para atender la devolución del total de las cantidades que procedan.

3.– La comprobación de la adecuación de las garantías presentadas corresponderán al órgano gestor, para lo cual seguirá el criterio de hipótesis conservadoras de futura comercialización y rentabilidad de los citados derechos audiovisuales.

4.– Cuando a juicio motivado del órgano gestor, la garantía presentada resulte insuficiente podrán requerirse al solicitante garantías adicionales. Para la adecuada valoración de las garantías presentadas el órgano gestor podrá, a su vez, instar la correspondiente valoración a la Entidad Colaboradora, o a servicios externos adecuados.

#### Artículo 8.– Órgano gestor.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura la realización de las tareas de gestión inherentes a las modalidades de financiación previstas en la presente convocatoria que no vengán asignadas formalmente a la Entidad Colaboradora en los términos previstos en este Decreto o en el Convenio regulador de la colaboración.

## CAPÍTULO II DE LOS PRESTAMOS SIN INTERÉS

Artículo 9.– Características de los préstamos sin interés.

1.– Interes-tasarik gabeko mailegu itzulgarrien bidezko finantziazio-modalitatean, Administrazioak hainbat ordainketa egiten dizkio ikus-entzunezkoen produktore bati edo batzuei ikus-entzunezko produkzio jakin baten garapen-faseko kostuak finantzatzeko, betiere baldintza batekin: emandako zenbateko osoa finkatutako epeetan itzultzea interes-tasarik ordaindu gabe.

2.– Interes-tasarik gabeko mailegu itzulgarriak modalitate honetara aurkezten den proiektuaren benetako kostuaren arabera izango dira. Proiektuak, berriz, ikus-entzunezko produkzio berriak izateaz gain, atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza-lanak izango dira dekretu honetako definizioen arabera.

3.– Finantziazio modalitate honen eskatzaileek ikus-entzunezko produkzioaren bideragarritasun ekonomiko, finantzarioa eta komertziala egiaztatu beharko dute.

**10. artikulua.**– Interes-tasarik gabeko maileguen mugak.

1.– Interes-tasarik gabeko maileguek muga orokor hauek izango dituzte:

– Ikus-entzunezko lanaren kostuaren % 30ekoak izango dira gehienez, egiaztatutako finantziazioaren arabera.

– Ikus-entzunezko produkzio bakoitzeko, 600.000 euro eman daitezke, gehienez, urtean.

– Produkzio-etxe bakoitzari 1.200.000 euro eman ahal zaizkio gehienez.

2.– Ikus-entzunezko produkzioa euskara hutsean egiten bada, mailegua produkzioaren kostuaren % 60ra artekoa izan daiteke.

3.– Koprodukzioen kasuan, 5. artikuluan aipatutako eskakizun orokorrak betetzeaz gain, onuradunak % 20ko titulartasuna eduki behar du, gutxienez, ikus-entzunezko sorkuntzaren eskubideen gainean. Gutxieneko portzentaje hori mantendu egin beharko da mailegua itzuli arteko denbora guztian.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritako gutxieneko portzentajea betetzeari dagokionez, dekretu honen arabera entitate onuradun izateko bete behar diren eskakizun subjektiboak betetzen dituzten koproduktore guztiak hartu ahal izango dira aintzat.

5.– Koprodukzio batean euskal produktoreen portzentajeak pilatzen badira, tartean dauden koproduktoreek agiri bat aurkeztu behar dute eta, bertan, honako hauek adieraziko dituzte: elkarrekin eskatuko dutela mailegua; esleitzen zaizkien maileguen ondoriozko konpromisoak beteko dituztela eta diruz lagundu nahi den ikus-entzunezko produkzioaren titulartasunean ba-

1.– La modalidad de financiación mediante préstamos sin interés se configuran como abonos que efectúa la Administración a uno o varios productores audiovisuales para financiar los costos correspondientes a la fase de desarrollo de una producción audiovisual concreta, bajo la condición de devolución en su totalidad de la cantidad entregada en los plazos establecidos y sin generar interés alguno.

2.– Los préstamos sin interés serán proporcionales a los costes reales del Proyecto que acceda a esta modalidad de ayuda, que en todo caso serán producciones audiovisuales de nueva creación que tengan la consideración de obra audiovisual de creación no seriada en los términos de este Decreto.

3.– Los solicitantes de esta modalidad de financiación deberán acreditar la viabilidad económico-financiera y/o comercial de la producción audiovisual.

**Artículo 10.**– Límites de los préstamos sin interés.

1.– Las cantidades a conceder en concepto de préstamos sin interés tendrán los siguientes límites generales:

– Podrán ascender hasta el 30% del valor de coste de la obra audiovisual, en función de la financiación acreditada.

– Un máximo aplicable en cada año de 600.000 euros por Producción audiovisual.

– Un máximo de 1.200.000 euros por Productora.

2.– El límite máximo del porcentaje por obra audiovisual podrá elevarse a un 60% del coste cuando la correspondiente producción audiovisual se realice íntegramente en euskera.

3.– Cuando se trate de coproducciones, el beneficiario además de los requisitos generales establecidos en el artículo 5, deberá ostentar una titularidad de, al menos, el 20% sobre los derechos de la creación audiovisual. Este porcentaje mínimo deberá mantenerlo durante todo el periodo hasta la devolución del correspondiente préstamo.

4.– A los efectos de cumplimiento del porcentaje mínimo establecido en el párrafo anterior se podrá tomar en consideración al conjunto de coproductores que reúnan los requisitos subjetivos que les hagan susceptibles de considerarse entidades beneficiarias en los términos previstos en este Decreto.

5.– En el caso de coproducciones en las que se proceda a la acumulación de los porcentajes de los productores, los coproductores involucrados deberán presentar además un documento en el que todos ellos acuerden proceder concurrir conjuntamente a la petición del préstamo y a asumir todos los compromisos derivados de los préstamos que se les reconozcan, así como a su

koitzak duen portzentajearen arabera itzuliko dituzte-la maileguak.

6.– Eskabidea egiten dutenean, interesatuek egiaztatu egin beharko dute badutela produkzioa finantzatzeko behar den gainerako zenbatekoa (oro har, % 70 gutxienez, eta euskara hutsean egindako produkzioen kasuan, % 40 gutxienez). Egiaztapen hori egiteko, honako hauek erabil daitezke: telebista-kateekin edo produkzioak banatzeko edo erakusteko elkarteekin sinatutako kontratuak; baliabide berekiak, eta kaudimen egiaztatua duten finantzabideak edo diru-laguntzak, baldin eta horiekin laguntza hauen bitartez estaltzen ez den kostua ordaintzeko adina diru-sarrera lortzen bada.

**11. artikulua.**– Ordaintzeko araubidea eta interes-tasarik gabeko maileguen itzulketak.

1.– Kasuan kasuko zenbatekoak errekonozitzeko prozedura gauzatu, produkzioaren gainerako kostuaren finantziakzioa egiaztatu ondoren Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak ebazpena eman eta entitate laguntzailearekin behar den agiria izenpetu ondoren, esleitutako laguntza ordaintzeari ekingo zaio. Ordainketa bi zatitan egingo da:

– Lehenengo ordainketa (zenbatekoaren % 70), laguntza ematea onartu dela adierazten duen ebazpena jakinarazitakoan egingo da.

– Bigarren ordainketa (gainerako % 30a), pelikularen kostua egiaztatzen duen auditoria txostena organo kudeatzailean entregatu ondoren egingo da. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (KAEO) inskribatutako auditoreek burutu beharko dute txosten hori, dekretu honetan eta horrekin bateragarriak diren xedapenetan ezarritako balorazio prozeduren arabera. Kreatiboan, pertsonal teknikoaren eta artistikoaren, eta euren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten profesional edo enpresek gauzatutako zerbitzuen berri eman beharko da txosten horretan, hain zuzen ere, dekretu honetako 3.2 artikuluan ezarritakoa bete dela egiaztatzeko.

2.– Esleitutako zenbatekoak lau zati berdinetan itzuliko dira, urtean bat, lehenengo ordainketa egin eta hurrengo lau urteetan. Eskabidea egiten duenean, interesatuak hasierako hamazortzi hilabeteetan ezer ez ordaintzea eska dezake, baina, horrelakoetan ere, jaso duen zenbateko osoa goian aipatutako epearen barruan ordaindu beharko du.

### III. KAPITULUA KONTRATUAK FINANTZATZEKO MAILEGUAK

**12. artikulua.**– Kontratuak finantzatzeko maileguen ezaugarriak.

reintegro conforme al porcentaje que les corresponda en función de su titularidad respecto a la producción audiovisual para la que soliciten la ayuda.

6.– Los interesados junto con la solicitud deberán demostrar que, disponen efectivamente del resto de la financiación de la producción (un mínimo del 70% con carácter general, o un mínimo del 40% para las producciones íntegramente en euskera). Este extremo deberá verificarse mediante contratos firmados con cadenas de televisión, sociedades de distribución y/o de exhibición, recursos propios, subvenciones u otras vías de financiación de solvencia ampliamente contrastada, de la que se deriven ingresos suficientes para cubrir el coste de la producción no cubierto por estas ayudas.

**Artículo 11.**– Régimen de pagos y devolución de los préstamos sin interés.

1.– Sustanciado el correspondiente procedimiento de reconocimiento de las cantidades que procedan, y previa emisión de la correspondiente resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deporte una vez acreditada la financiación restante de la producción y previa suscripción igualmente del correspondiente documento con la entidad colaboradora, se procederá al inicio de los abonos de la ayuda otorgada. El pago de la ayuda se efectuará en dos abonos:

– El primero por un 70% de la cantidad reconocida, una vez notificada la resolución de reconocimiento.

– El segundo por el 30% restante una vez que se entregue en el órgano gestor el informe de auditoría que acredite el coste de la película. Este Informe deberá ser realizado por auditores inscritos en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) de acuerdo a las normas procedimentales de valoración previstas en la presente norma y demás disposiciones concordantes, y en el mismo se deberá especificar el porcentaje del gasto utilizado en la contratación de creativos, personal técnico, artístico y servicios prestados por profesionales o empresas con residencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, a los efectos de acreditar el cumplimiento de lo establecido en el artículo 3.2 del presente Decreto.

2.– Las cantidades entregadas deberán devolverse en su importe íntegro en anualidades iguales dentro de los 4 años siguientes a la fecha del primer abono. Junto con la solicitud el interesado podrá pedir una carencia en el pago de dieciocho meses, manteniéndose, en todo caso, el plazo máximo antes citado para la devolución íntegra de la cantidad entregada.

### CAPÍTULO III DE LOS PRÉSTAMOS PARA LA FINANCIACIÓN DE CONTRATOS

**Artículo 12.**– Características de los préstamos para la financiación de contratos.

1.– Kontratuak finantzatzeko maileguen modalitatea ikus-entzunezkoen sorkuntza finantzatzeko lerro bat da, baina, kasu honetan, lehentasunezko interes-tasadun mailegu-kontratu bat egingo da ikus-entzunezko produktore batekin edo gehiagorekin.

2.– Ikus-entzunezko lan produzitu berri guztietarako eska daitezke laguntza hauek, baldin eta emisio-eskubideak eskuratzen diren urte berean edo hurrengoan produzitu badira.

3.– Finantziazio-modalitate honetan, emandako dirua ez ezik, sortutako interesak ere itzuli beharko dira. Zenbatekoari ezarriko zaion interes-tasa hauxe izango da maileguak dirauen artean: Euribora urte betera, gehi % 0,50eko marjina. Ez da inolako komisiorik kobratuko.

4.– Finantziazio-modalitate honetan, itzuli beharreko zenbatekoaren berme gisa, produktoreak Kultura Sailari lagako dizkio telebistaren eta produktorearen arteko kontratuaren ondorio diren kobrantza-eskubideak, BEZ barne.

**13. artikulua.**– Kontratuak finantzatzeko maileguen mugak.

Eskatzaileei, gehienez, ikus-entzunezko lanaren gaineko eskubideen erosketa-prezioaren %100 ordainduko zaie. Telebistekin edo banaketa-sozietateekin diruz lagundu nahi den ikus-entzunezko produkzioa dela-eta sinatutako produkzio, ustiaketa edo merkaturatze kontratuen ondoriozkoak izango dira eskubideok. Gehienezko muga horretan ez da BEZa sartzen.

**14. artikulua.**– Berariazko dokumentazioa.

1.– Finantziazio-modalitate honen eskatzaileek kontratuaren kopia aurkeztu behar dute edo, bestela, finantzatu nahi den ikus-entzunezko produkzioaren komunikazio publikoko eskubideak erosteko asmoa adierazten duen gutuna. Bertan, eskubideak eskatzen dituen produktoreak eskuratuko duen prezioa azalduko da edo, gutxienez, hori zehazteko modua.

Asmoen gutuna aurkezten bada, sinatzaileak ahalmena izan behar du ordezkari eta erantzule izateko eraz ezarrita dauden telebistako operadoreekin edo ikus-entzunezkoen banatzaileekin sinatuko den kontratuari dagokionez.

2.– Telebista operadoreekin batetik banatzaileek eta bestetik produktoreek sinatzen dituzten kontratuetan, argi adieraziko da kontratuan agertzen den ikus-entzunezkoaren estreinaldia noiz izango den edo komunikazio publikoa egiteko materialak noiz entregatuko diren. Halaber adieraziko da, egiaztapena egiteko behar den gehienezko denborekin, komunikazio publikoagatik ezarritako zenbatekoak zein unetan ordaindu behar diren. Ordainketa hori operadorearen lizentzia-aldia hasten den unean egingo da.

